



HEGO AMERIKA x Kaspiar itsasoa [-28m]

Asteon abiatu dira Pangea egitasmoko kideak Errusia aldera. Ipar Amerika, Australia eta Hego Amerikako sakonuneak aztertu ondoren, Europa, Eurasia eta Afrikako sakonuneak ikuskatzera joko dute bigarren fase honetan: Kaspiar itsasoa, Itsaso Hila eta Assal lakua, hurrenez hurren. Geografikoki aurreneko hirurak baino gertuagoko lurraldeak izanik ere, kulturalki askoz urrunagokoak dira hirurak, eta giro politiko nahasikoak, gainera.

Geografia aldetik gertuen, kultura aldetik urrunen

Ilargi betea, Laguna del Carbon sakonunean, Hego Amerika osoko lekuri baxuenean.

Josu Iztueta

Pangea izeneko superkontinenteak duela 200 milioi urte pasatxo gaur egun ezagutzen ditugun lur guztiak biltzen zituen bere barruan, harik eta gaur egun ezagutzen ditugun kontinente eta uharteetan banatu zen arte. Mapamundia aski ezaguna zaigu egun, baina mapa horiek bi irakurketa dituztela ere txikitatik erakutsi digute: fisikoa bata eta politikoa bestea. Gure helburuak, kontinente bakoitzeko sakonune handienak ezagutu eta aztertzeak, zerikusi gehiago du mapa fisikoei eta erliebearekin. Alabaina, hatz muturra mapa gainean jartzen dugunean, ezin ahaztuko dugu paper zati horren errealitatea nonbait kokaturik dagoela eta egoera politiko, sozial eta kultural jakin bati erantzuten diola.

Pangea asmoaren lehen atalean, Ipar Amerika (hilabete), Australia (hilabete eta erdi) eta Hego Amerika (bi hilabete) bisitatu genituen. Aldiro joan-etorria hegazkinez egin genuen eta tokian bertan ibilgailu gorpildun bat erabili izan dugu. San Frantziskon alokatutako furgoneta dotorea EEBBetan, Sydneyn erositako katxarro zahar bat Australian eta Iguazun zegoen Nairobi bitarra autobusa Hego Ameriketara; guztira 25.000 kilometro lur azaletik egin eta gero itzuli ginen etxera.



Pangea egitasmoak, atsedenaldi txiki bat hartu ondoren, Europa, Asia eta Afrikara egin behar du orain jauzia. Bitxia bada ere, Death Valley, Eyre Lakua eta Valdes Penintsula sakonuneak ezagutzeko aitzakian, geografikoki urrunen baina kulturalki gertuen ditugun herrialdeak ezagutu ditugu orain arte. Pangearen

bigarren etapa honetan, geografikoki gertuen baina kulturalki urrunen ditugun herrialdeak ezagutuko ditugu: Kaspiar itsasoa, Europako sakonunerik zabalena; Itsaso Hila, Israel eta Jordania artean, eta Assal lakua, Djiboutin (Afrika). Azken hamarkadetan mapa politikoek inon baino aldaketa gehiago izan dute leku horietan, eta egun ere lurralde gatazkatsuak dira. Beraz, bihotzak eramango gintuzkeen bidetik joatea baino buruak agintzen digunetik joatea hobe izango delakoan gaude. Horregatik, hasierako asmoa berraztertu eta aldaketa txiki batzuk izan dira.

Hasiera batean, etxetik furgonetaz abiatzekotan ginen. Lehenbizi, Errusiako Kaspiar itsasora (-28m); gero handik, Georgia zeharkatuz, Turkiara sartzeko. Ondoren, Siriatik barrena Israel eta Jordania artean dagoen Itsaso Hila (-395m) ezagutzea zen gure asmoa, eta agian gero Sinaitik Egiptora eta, Sudan zein Etiopia gurutzatu ondoren, Djiboutiko Assal lakura (-155m) iristeko. Gauzak ez dira, ordea, guk nahi bezala eta egoera politiko nahasian dira herrialde hauek gehienak azkenaldian. Ondorioz, nahia ezina bihurtu zaigu, bisaak direla, muga eta burokrasia arazoak direla. Ezina etsipen bihurtzerik ez genuen nahi, eta, horregatik, joan-etorri bakoitza hegazkinez egin beharko dugu halabeharrez.

Taldeari dagokionez, lehen hiru sakonuneetan egondako hainbat lagun lanera itzuli dira, beste norbaitek arazo ekonomikoak ditu eta, guztia gure poltsikoetatik ordaintzen ari garen, bakoitzak erabakitzeke eskubide osoa izan dugu. Azkenean, bost lagun izango gara Pangearen bigarren aldi honetan: Maialen Lujanbio, Ander Izagirre, Balentin Dorronsoro, Marijose Arrieta eta idazten ari den hau, Josu Iztueta. Pangearen hasieratik egin dugun moduan, bigarren aldi honetan ere hamabostean behin gure egitasmoaren berri emango dugu Mundumirako orriotan. Zalantzarik ez, mapa fisikoei sakonuneak ez ezik mapa politikoetako gorabeherak ere sakonago aztertuko ditugu hurrengo kroniketan.

Astrakhanera bidean

Mapa eta egutegia aurrean ditugula, puzzlea osatzeari ekin diogu jada, hegazkin txartelak modu onenean edo merkeenean lortu eta oraingoan hemen gaude, Moskun. Errusian inoiz izan gabeak gara bostok (Balentin Dorronsoro, Ander Izagirre, Maialen Lujanbio, Marijose Arrieta eta Josu Iztueta), eta askotan entzundako Plaza Gorria, Kremlin eta inguruetan gaudela sinistu ezinik gabiltza. Kontraste handiak espero ditugu, kultura aldetik, hizkuntza, ohitura, erlijio, arkitektura, janari, jendearen harrera... gauza asko batera. Gainera,

bihar edo etzi tren hartu eta Volgogradetik barrena Astrakhanera iritsi nahi dugu. Errotuluak zirilik alfabetoaz idatzitakoak daude. Ez al gara nahastuko eta Transiberianoan sartuko; bestela, Vladivostoken azalduko gara hamar egun barru! Geologian milioika urte ez da ezer asko. Gizakion bizitzarekin alderatuz mugagabea dirudien hori, gainera, gu aste gutxitan ezagutu nahian gabiltza. Presaka ibiltzeko ez ditugu toki egokiak aukeratu! Hamabostaldiaren ondoren izango duzue gure berri gehiago.



Josu Iztueta